

ALDIZKARI NAGUSIA BOLETÍN OFICIAL

Donostiako Elizbarrutia
Diócesis de San Sebastián

2023 maiatza-ekaina
mayo-junio

LXXIV - número 773 zenbakia



ALDIZKARI NAGUSIA BOLETÍN OFICIAL

Donostiako Elizbarrutia
Diócesis de San Sebastián

2023 maiatza-ekaina
mayo-junio

LXXIV - número 773 zenbakia





**Donostiako
Elizbarrutia**
Diócesis de
San Sebastián

Heriz pasealekua, 82 (Seminarioa) - 20008 Donostia ☎ 943 285 000
✉ idazkaritza@elizagipuzkoa.org ♦ www.elizagipuzkoa.org

AURKIBIDEA
ÍNDICE

SEÑOR OBISPO

Cartas

Proceso consultivo para el nombramiento del Vicario General y del responsable del Servicio Diocesano de atención al clero..... 224

Agenda

Mayo-junio 228

SECRETARÍA GENERAL

Decretos

Supresión de la Asociación Pública de Fieles MALKAR Astialdi Taldea 234

Constitución del nuevo Consejo Presbiteral 238

Nombramientos 242

Jubilaciones..... 243

Fallecimientos..... 244

Confirmaciones 247

VICARÍA GENERAL

IV Encuentro Sinodal en Arantzazu 250

Servicio Diocesano de Economía y Administración

Necesidades de la Iglesia Universal. Resumen de lo recaudado en 2022..... 252

Otros

Marcha nocturna a Itziar 254

Peregrinación diocesana a Lourdes..... 258

Junio, mes del Sagrado Corazón de Jesús..... 260

GOTZAIN JAUNA

Gutunak

Bikario Nagusia eta Kleroaren arretarako Elizbarrutiko Zerbitzuko arduraduna izendatzeko kontsulta-prozesua	225
---	-----

Agenda

Maiatza-ekaina	229
----------------------	-----

IDAZKARITZA OROKORRA

Dekretuak

Eliztarren Bazkuna Publikoa MALKAR Astialdi Taldea ezabatzea	235
--	-----

Kontseilu Presbiteral berria eratzea.....	239
---	-----

Izendapenak	242
--------------------------	-----

Jubilazioak	243
--------------------------	-----

Heriotzak	244
------------------------	-----

Sendotzak	247
------------------------	-----

BIKARITZA NAGUSIA

Sinodoaren IV. topaketa Arantzazun.....	251
---	-----

Ekonomia eta Administrazioarako Elizbarrutiko Zerbitzua

Munduko Elizaren Beharrak. 2022ko diru-bilketaren laburpena.....	253
--	-----

Gainerakoak

Itziarrera Gau-ibilaldia	255
--------------------------------	-----

Elizbarrutiko erromesaldia Lourdesera	259
---	-----

Ekaina, Jesusen Bihotzaren hilabetea.....	261
---	-----

VICARÍAS EPISCOPALES DE PASTORAL

PASTORAL DE EVANGELIZACIÓN

Servicio Diocesano de Iniciación Cristiana y Catequesis

– Catequesis de Adultos

Confirmaciones de adultos: convivencia y celebración 264

Servicio Diocesano de Enseñanza

Santa Teresa Ikastetxea, Larramendi Ikastetxea y Jesuitinas Donostia:
alianza para construir un modelo educativo de referencia 266

Servicio Diocesano de Atención Pastoral al Inmigrante

Talleres de Interioridad *Gertu* 272

PASTORAL SOCIAL Y MISIONES

Servicio Diocesano de Caritas

Actividades 276

Servicio Diocesano de Pastoral Penitenciaria

Asamblea diocesana 282

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA

Jornada Pro Orantibus 286

Solemnidad del Corpus Christi 289

SANTA SEDE

Mensajes

Jornada Mundial de la Juventud 296

PASTORALTZARAKO GOTZAIN BIKARITZAK

EBANJELIZATZE PASTORALTZA

Kristau Sarbiderako eta Katekesirako Elizbarrutiko Zerbitzua

– Helduen Katekumenotza

Helduen Sendotzak: Elkarbizitza eta Ospakizuna 265

Irakaskuntzarako Elizbarrutiko Zerbitzua

Santa Teresa Ikastetxeak, Larramendi Ikastetxeak eta Jesuitinas Donostia
Ikastetxeak: Hezkuntza eredu erreferentea eraikitzeko aliantza 267

Etorkinen Arreta Pastoralerako Elizbarrutiko Zerbitzua

Gertu barnekotasun tailerrak 273

SOZIAL ETA MISIO PASTORALTZA

Caritas Elizbarrutiko Zerbitzua

Jarduerak 277

Espetxeratuekiko Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzua

Elizbarrutiko Batzarra 283

ESPAINIAKO GOTZAINEN BATZARRA

ERROMATIK

GOTZAIN JAUNA
SEÑOR OBISPO

Cartas

San Sebastián, 16 de mayo de 2023

Queridos sacerdotes, religiosos/as y laicos:

Se han cumplido ya seis meses desde mi llegada como Obispo de nuestra querida Diócesis de San Sebastián. En estos meses he tenido la oportunidad de saludaros personalmente a muchos de vosotros, y espero poder seguir haciéndolo en adelante.

Hoy os escribo para pedir os vuestro consejo. Me gustaría escuchar vuestra opinión antes de nombrar el Vicario General para nuestra Diócesis, y para ello os invito a participar en este proceso consultivo.

Estos son los que participarán en el sondeo:

- Los presbíteros diocesanos en activo o jubilados
- Los religiosos sacerdotes con cargo pastoral
- Las comunidades de religiosos y religiosas (una papeleta por comunidad)
- Los movimientos apostólicos (una papeleta por movimiento)
- Los laicos de los Consejos Pastorales Arciprestales
- Los laicos del Consejo Pastoral Diocesano
- Los trabajadores laicos de los servicios diocesanos

La forma concreta en la que solicito vuestra colaboración en este proceso consultivo es la siguiente: os pido que escribáis en el papel que os adjunto tres nombres proponiéndolos para ser Vicario General. Os invito también que pongáis, si es posible, los motivos por los que proponéis a esos candidatos.

Donostia, 2023ko maiatzaren 16a

Apaiz, erlijioso/a eta laiko maiteok:

Igaro dira dagoeneko sei hilabete Donostiako gure Elizbarruti maite honetako Gotzain izendatu nindutenetik. Hilabete hauetan zuetako asko pertsonalki agurtzeko egokiera izan dut, eta aurrerantzean ere hori egiten jarraitzea espero dut.

Gaur zuei aholkua eskatzeko idazten dizuet. Gure Elizbarrutirako Bikario Nagusia izendatu aurretik zuen iritzia entzutea gustatuko litzaidake, eta horretarako kontseilu-bide honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztet.

Hauek dira galdeketa honetan parte hartuko dutenak:

- Apaizak: jardunean direnak eta jubilatuak
- Ardura pastoralak duten erlijioso apaizak
- Elizbarrutiko erlijioso eta erlijiosa elkarteak (elkarte bakoitzeko txartel bat)
- Mugimendu apostolikoak (talde bakoitzeko txartel bat)
- Artziprestaldeetako Pastoral Kontseiluetako laikoak
- Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluko laikoak
- Gotzaindegiko zerbitzuetako langile laikoak

Kontseilu-bide honetan zuek parte hartzeko eskatzen dudana era, zehazki honetan datza: eskatzen dizuet, honekin batera bidaltzen dizuedan paperean Bikario izateko hiru izen niri proposatzea. Eta gonbidatzen zaituztet ere, ahal bada, hautagai horiek zergatik proposatzen dituzuen jartzera.

A los presbíteros y diáconos os envío otra papeleta más, para que propongáis también tres nombres proponiéndome quien pueda ser responsable del Servicio Diocesano de atención al clero.

Para no alargarnos más de lo debido en este proceso, así como para que tengamos la necesaria coordinación, os agradecería que me respondierais en el plazo de una semana desde la recepción de esta carta, de manera que lleguen para el 31 de mayo. ¡Vaya por adelantado mi agradecimiento por vuestra colaboración con este pastor!

Que la Madre del Buen Pastor nos ayude a actuar con acierto.

In Corde Matris,

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Obispo de San Sebastián

Presbitero eta diakonoei bigarren txartel bat ere bidaltzen dizuet, hiru izen proposatu diezazkidazuen Kleroaren arretarako Elizbarrutiko Zerbitzuko arduraduna izenda dezadan.

Ibilbide honetan behar baino gehiago ez luzatzearren, baita behar hainbateko koordinaketa izatearren ere, eskertuko nizueke, eskutitz hau hartzen duzuenetik aste baten epean, erantzungo bazenidakete, maiatzaren 31rako denak irits daitezten. Jaso ezazue nire esker ona artzain honekiko duzuen elkar laguntasunagatik!

Artzain Onaren Ama Mariak lagun diezagula asmatzen.

In Corde Matris,

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Donostiako Gotzaina

Agenda

MAYO

- 1-7:** Visita residencia sacerdotal Seminario
- 7:** Marcha nocturna a Itziar
- 9:** Visita fundación Hurkoa
- 10:** Reunión consejo de gobierno
- 11:** Reunión fundación Elikel
- 12:** Reunión arciprestazgo Urola-Kosta
Reunión del sínodo en Hernani
- 13:** Confirmaciones colegio Erain, en la Catedral
Confirmaciones parroquia Nuestra Señora de la Asunción, Zumárraga
- 15:** Visita a Azkoitia
Celebración Compañía de María (Juana de Lestonac)
- 16:** Reunión Kristau Eskola
- 17:** Reunión consejo de gobierno
- 18:** Visita MM. Brígidas Lasarte
- 19:** Reunión del sínodo en Andoain
- 20:** Confirmaciones Marianistas (Aldapeta), en la Catedral
- 22:** Retiro del clero en el Seminario
Visita Abadesa MM. Brígidas
- 26-27:** Peregrinación a Lourdes
- 28:** Confirmaciones adultos en la Catedral
- 31:** Reunión consejo de gobierno
Entrevista 13TV

MAIATZA

- 1-7:** Seminarioko apaizen egoitzara bisita
 - 7:** Itziarrera gau-ibilaldia
 - 9:** Hurkoa fundazioa bisita
 - 10:** Gobernu kontseiluaren bilera
 - 11:** Elikel fundazioaren bilera
 - 12:** Urola-Kosta artziprestaldeko bilera
Sinodoaren bilera Hernanin
 - 13:** Erain ikastetxeko sendotzak, Katedralean
Sendotzak Zumarragako Andre Mariaren Zeruratzea parrokiari
 - 15:** Azkoitira bisita
Mariaren Lagundiko ospakizuna (Juana de Lestonac)
 - 16:** Kristau Eskolarekin bilera
 - 17:** Gobernu kontseiluaren bilera
 - 18:** Lasarteko Brigitarren bisita
 - 19:** Sinodoaren bilera Andoainen
 - 20:** Marianistak (Aldapeta) sendotzak, Katedralean
 - 22:** Kleroaren erretiroa seminarioan
Brigitarren abadesaren bisita
- 26-27:** Lourdesera erromesaldia
- 28:** Helduen sendotzak Katedralean
- 31:** Gobernu kontseiluaren bilera
13TV elkarriketa

JUNIO

- 1:** Visita provincial Salesianos
- 3:** Reunión del sínodo en Arantzazu
Confirmaciones parroquia Nuestra Señora del Carmen, Añorga
- 4:** Confirmaciones parroquia San Miguel Arcángel, Oñati
- 5:** Reunión consejo de economía
- 6:** Visita Madres de los Desamparados (San Jose de la Montaña)
- 7:** Reunión interdiocesana obispos
- 8:** Consejo de catequistas
Reunión en el Seminario de Pamplona
- 9:** Celebración en Bilbao
- 10:** Asamblea Cáritas
Confirmaciones parroquia María Reina, Donostia
- 13:** Misa en la capilla de Urgull, Donostia
- 14:** Reunión consejo de gobierno
Reunión fundación Juan Maria Vianney
- 15:** Fundación Matía: inauguración nuevo centro
- 20:** Asesoría patrimonio (todo el día)
- 21:** Asesoría patrimonio (todo el día)
- 22:** Claustro Pio XII
- 24:** Confirmaciones parroquia San Ignacio, Donostia
- 28:** Reunión consejo de gobierno

EKAINA

- 1:** Salestarren probintzialaren bisita
- 3:** Sinodoaren bilera Arantzazun
Sendotzak Añorgako Karmengo Andre Maria parrokia
- 4:** Sendotzak Oñatiko San Mikel Goiaingerua parrokian
- 5:** Ekonomia kontseiluaren bilera
- 6:** Babesgabeen Amen bisita (San Jose de la Montaña)
- 7:** Elizbarrutiarteko gotzainen bilera
- 8:** Katekisten kontseilua
Iruñeako Seminarioan bilera
- 9:** Bilbon ospakizuna
- 10:** Caritaseko batzarra
Sendotzak Andre Maria Erregina parrokian
- 13:** Donostiako Urgulleko kaperan Meza
- 14:** Gobernu kontseiluaren bilera
Juan Maria Vianney fundazioaren bilera
- 15:** Matia Fundazioa: egoitza berriaren inaugurazioa
- 20:** Ondare-aholkularitza (egun osoa)
- 21:** Ondare-aholkularitza (egun osoa)
- 22:** Pio XII klaustroa
- 24:** Sendotzak Donostiako San Ignazio parrokian
- 28:** Gobernu kontseiluaren bilera

IDAZKARITZA OROKORRA
SECRETARÍA GENERAL

Decretos



D. FERNANDO PRADO AYUSO, CMF,
POR LA GRACIA DE DIOS Y DE LA SANTA SEDE APOSTÓLICA,
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

EXPONE

Que se le ha informado de la reunión habida el día 17 de abril de 2023 en la parroquia *Jesusen Bihotza* de Villabona del consejo pastoral de la misma respecto de la situación de la Asociación Pública de Fieles *MALKAR Astialdi Taldea*, que tiene su domicilio en dicha parroquia. De acuerdo con la información previa y lo manifestado en el acta de dicha reunión (cf. can 320 §3), se señala que dicha Asociación Pública de Fieles:

- se encuentra actualmente sin actividad alguna en el presente y sin posibilidad de que la tenga en el futuro,
- se encuentra en una situación de incapacidad para realizar las finalidades para las que fue constituida,
- no hay posibilidad de encontrar personas idóneas que puedan ser el relevo generacional que lleve a cabo dichas finalidades para las que fue erigida.

Tal como consta en el acta de la reunión, en aplicación del artículo 34, 2º de los estatutos de la Asociación, previo consentimiento para ello del Vicario General, según el mismo artículo, el párroco y el consejo pastoral de la parroquia han decidido la extinción de dicha Asociación.



FERNANDO PRADO AYUSO, CME, JAUNAK
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK

ADITZERA EMATEN DU

Villabonako *Jesusen Bihotza* parrokiako pastoral kontseiluak 2023ko apirilaren 23an egindako batzarraren berri izan duela. Bere egoitza parrokia horretan duen *Eliztarren Bazkuna Publikoa MALKAR Astialdi Taldea* delakoaren egoera aztertzeko izan zen batzar hori. Aurrez genuen informazioa eta batzar horren aktan azaldua kontuan izanik (ik. kan 320 §3), Eliztarren Bazkuna Publiko delako hori honako egoera honetan dagoela adierazten da:

- une honetan inolako jarduerarik ez duela eta etorkizunean ere jarduerarik izateko erarik ez duela,
- ezinezkoa duela, Bazkuna sortzean jarritako helburuak egikaritzea,
- ezinezkoa duela pertsona egokiak aurkitzea, orain arte ari izan direnen ordez Bazkuna sortzean jarritako helburuak betetzeko.

Bileraren aktan datorrenez, Bazkunaren estatutuetako 34, 2 artikulua aplikatuz, artikulua beraren arabera horretako Bikario Nagusiaren oniritzia duela, parrokoak eta pastoral kontseiluak Bazkuna hori iraungitzea erabaki dute.

Vista la decisión del párroco y del consejo pastoral de la parroquia, así como la gravedad y consistencia de los motivos presentados,

DECRETO

La supresión de la Asociación Pública de Fieles *MALKAR Astialdi Taldea*.

Aténgase la Junta Directiva en lo que respecta los bienes a lo indicado en los estatutos (artículos 35 y 36) y en el Derecho de la Iglesia para estos casos. Lo mismo ha de decirse respecto de los efectos civiles de esta supresión.

Publíquese este Decreto en el Boletín Oficial del Obispado y guárdese una copia en el Archivo de la Secretaría General.

Dado en San Sebastián, a 8 de mayo de 2023

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Obispo de San Sebastián

Por mandato de S. E. Rvdma.

Tomás Iraola Sarasúa
Canciller-Secretario General

Parrokoaren eta pastoral kontseiluaren erabakia kontuan izanik eta aurkeztutako arrazoen larritasuna eta sendotasuna ikusirik,

DEKRETUA EMATEN DUT

Eliztarren Bazkuna Publikoa MALKAR Astialdi Taldea ezabatzekoa.

Batzorde Zuzendariak bete beza ondasunei buruz estatutuek (35 eta 36 artikuluetan) diotena eta Elizaren Zuzenbide Kodeak honelako kasuetarako dioena. Era berean, bete bitza ezabatze honek dituen ondorio zibilak.

Argitara bedi Dekretu hau Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian eta gorde bedi kopia bat Idazkaritza Orokorraren artxiboan.

Donostian emana, 2023ko maiatzaren 8an

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF

Donostiako Gotzaina

Gotzain Jaunaren aginduz

Tomas Iraola Sarasua

Kantziler-Idazkari Orokorra



D. FERNANDO PRADO AYUSO, CMF,
POR LA GRACIA DE DIOS Y DE LA SANTA SEDE APOSTÓLICA,
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

DECRETO DE CONSTITUCIÓN DEL CONSEJO PRESBITERAL

Por el presente y a tenor de cuanto se determina en los cánones 495-502 del Código de Derecho Canónico, constituimos el nuevo CONSEJO PRESBITERAL y en virtud de mis facultades ordinarias nombro miembros del referido Consejo, por un quinquenio, con todas las facultades, competencias, derechos y obligaciones señalados en la legislación de la Iglesia a los siguientes consejeros; algunos de ellos miembros natos, otros elegidos y confirmados por mí y, por último, los de designación episcopal:

Miembros natos:

- *Vicario General*
- *Vicario episcopal de pastoral social y misiones*
- *Vicario episcopal de pastoral de evangelización*
- *Vicario episcopal de pastoral litúrgica y espiritualidad*
- *Vicario Judicial*
- *Rector del Seminario*
- *Responsable del servicio diocesano para la vida consagrada*
- *Secretario del Consejo de Arciprestes*
- *Presidente del Cabildo Catedralicio*



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF, JAUNAK
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK

KONTSEILU PRESBITERALA ERATZEKO DEKRETUA

Honen bidez eta Zuzenbide Kanonikoaren Kodearen 495-502 kanonek xedatzen dutenaren arabera, KONTSEILU PRESBITERAL berria eratzen dugu, eta nire ohiko ahalmenen arabera, aipatutako Kontseiluko kide izendatzen ditut bost urtetarako honako kontseilari hauek; batzuek berezko kide direnak, besteak hautatuak izanik nik berretsiak eta azkenik, gotzain izendapena dutenak:

Jatorrizko kideak:

- *Bikario Nagusia*
- *Sozial eta misio pastoraltzarako gotzain bikarioa*
- *Ebanjelizatze pastoraltzarako gotzain bikarioa*
- *Liturgia eta espiritualitate pastoraltzarako gotzain bikarioa*
- *Bikario Judiziala*
- *Seminarioko errektorea*
- *Biziera sagaraturako elizbarrutiko zerbitzuaren arduraduna*
- *Artzipresteen kontseiluko idazkaria*
- *Katedraleko Kabildoko presidentea*

Miembros electos:

- MURUA PAGOLA, Juan Luis: *Representante del arciprestazgo de Beterri*
- MUNILLA AGUIRRE, Esteban: *Representante del arciprestazgo de Donostia*
- IRIBARREN LARREA, LUIS -CMF-: *Representante del arciprestazgo de Ekialde*
- DOMÍNGUEZ MATELLANES, Jesús Javier: *Representante del arciprestazgo de Goierni*
- MOLINA BENGOA, Jon: *Representante del arciprestazgo de Mendebalde*
- SUSPERREGUI LESACA, Pedro Ignacio: *Representante del arciprestazgo de Urola-Kosta*
- GORRIA AROCENA, Víctor: *Representante de los sacerdotes jubilados*
- ZUBIZARRETA ZABALETA, Jabier: *Representante de los sacerdotes jubilados*
- OZAETA ROMERO, Emiliano -OSB-: *Representante de los Institutos de Vida consagrada, Sociedades de Vida Apostólica y Prelaturas Personales*
- SAGASTAGOITIA ORBEA, Jon -SJ-: *Representante de los Institutos de Vida consagrada, Sociedades de Vida Apostólica y Prelaturas Personales*
- CACHO ULTRA, Luis Miguel -SJ-: *Representante de los Institutos de Vida consagrada, Sociedades de Vida Apostólica y Prelaturas Personales*

Miembros de libre designación:

- AZURMENDI AYERBE, Félix Carmelo
- ORMAZABAL ECHEVERRÍA, Mikel

El Consejo será presidido por el Sr. Obispo o su delegado y, en sus sesiones plenarias o comisiones, se regirá por los Estatutos diocesanos del mismo.

Dado en San Sebastián, a 1 de junio de 2023

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Obispo de San Sebastián

Por mandato de S. E. Rvdma.

Tomás Iraola Sarasúa

Canciller-Secretario General

Kide hautetsiak:

- MURUA PAGOLA, Juan Luis: *Beterri artziprestaldeko ordezkaria*
- MUNILLA AGUIRRE, Esteban: *Donostia artziprestaldeko ordezkaria*
- IRIBARREN LARREA, LUIS -CMF-: *Ekialde artziprestaldeko ordezkaria*
- DOMÍNGUEZ MATELLANES, Jesús Javier: *Goierri artziprestaldeko ordezkaria*
- MOLINA BENGEOA, Jon: *Mendebalde artziprestaldeko ordezkaria*
- SUSPERREGUI LESACA, Pedro Ignacio: *Urola-Kosta artziprestaldeko ordezkaria*
- GORRIA AROCENA, Víctor: *Apaiz jubilatuen ordezkaria*
- ZUBIZARRETA ZABALETA, Jabier: *Apaiz jubilatuen ordezkaria*
- OZAETA ROMERO, Emiliano -OSB-: *Elizbarrutiko Biziera Sagaratu, Institutu, Apostolu-Bizitzako Sozietate eta Prelatura Pertsonaleko ordezkaria*
- SAGASTAGOITIA ORBEA, Jon -SJ-: *Elizbarrutiko Biziera Sagaratu, Institutu, Apostolu-Bizitzako Sozietate eta Prelatura Pertsonaleko ordezkaria*
- CACHO ULTRA, Luis Miguel -SJ-: *Elizbarrutiko Biziera Sagaratu, Institutu, Apostolu-Bizitzako Sozietate eta Prelatura Pertsonaleko ordezkaria*

Libreki izendatutako kideak:

- AZURMENDI AYERBE, Félix Carmelo
- ORMAZABAL ECHEVERRÍA, Mikel

Kontseiluan Gotzain jaunak nahiz haren ordezkoak buru egingo du, eta bere osoko bilkuretan nahiz batzordeetan bere Estatutuen arabera jokatu.

Donostian emana, 2023ko ekainaren 1ean

✠ Fernando Prado Ayuso, CMF

Donostiako Gotzaina

Gotzain Jaunaren aginduz

Tomas Iraola Sarasua

Kantziler-Idazkari Orokorra

ECHARTE OÑATE, Ignacio

Biziera sagaraturako elizbarrutiko zerbitzuaren arduraduna, hiru urtetarako.
Responsable del servicio diocesano para la vida consagrada, para tres años.

RIVERO GARCÍA, María

Elizbarrutiko Eliz Auzitegiko Notario akta-egilea eta Kuriako Notario-laguntzaile,
lau hilabeterako.

Notario-Actuario del Tribunal Eclesiástico Diocesano y Notario adjunto de la Curia Diocesana, para cuatro meses.

ROMERO RAMÍREZ, José Ignacio

Donostiako Artzain Ona eta San Martin gotzaina parrokietako Administratzaile.
Administrador de las parroquias El Buen Pastor y San Martín obispo, de San Sebastián.

– APESTEGUI CARDENAL, Luis Ricardo

RUIZ AQUIZU, José Luis

Azpeitia, 08/09/1934 – Donostia, 01/05/2023

Nació en Azpeitia el 8 de septiembre de 1934 y ha fallecido en Donostia el 1 de mayo de 2023.

Fue ordenado sacerdote en 1959 y en 1960 fue nombrado Maestro de Capilla y Coadjutor de la Parroquia de Santa María de Donostia/San Sebastián, donde permaneció hasta el año 2015, en que se retiró a la Residencia Diocesana Juan María Vianney.

En la Parroquia ejerció como organista y director de música con su buena voz de tenor, así como responsable de las labores de economía y obras. Dotó al mismo tiempo a la Basílica de un cuidado repertorio musical, que acoge y recoge a cuantos fieles acuden al templo y al museo diocesano. Los últimos años se encargó también de la atención a la iglesia de San Pedro del muelle, habiendo restaurado el interior del templo con pinturas y mosaicos del artista franciscano José Luis Iriondo.

Durante estos años se ocupó asimismo de las tareas de catequesis de niños y confirmación de jóvenes, así como de los Campamentos parroquiales de Iruñela (Navarra), sección de euskera, junto a Don José María Gorria.

Impartió clases también en diversos centro educativos de la ciudad, especialmente en el Colegio de Don Eugenio en la parte vieja.

Hombre bien dotado para las relaciones sociales y la gastronomía, ha tomado parte en diversas actividades de sociedades de la parte vieja, especialmente en Gaztelubide y Gaztelupe.

Beretzako gaur gure esker ona, gure otoitza, eta egun handi arte. Eska diezaiogun Jaunari bidali ditzala artzain onak bere artaldeari. Goian Bego.

AGUIRRE LIZARRIBAR, José Francisco

Ibarra, 14/11/1933 – Donostia, 09/05/2023

San Bartolometik San Bartolomera, Ibarratik Amezketara, etorri, ikusi eta zerua zabalik ikusteko.

Apaiz bokazioa sortu, Saturraranen tartetxo bat egin eta Gasteizera ikasketak egitera. Azkenak izan omen ziren. Gero Donostiako Seminariora. 1958 apaiztuak, gure Elizbarrutian izan zen apaiz talderik handiena. Apaizteko Lourdesera joan ziren.

Lehen bi urteak Eibarko Aginagan eman zituen. Gipuzkoako azken mutur hartatik kapitaleko Loilara izendatu zuten. Aldaketa latza. Hiru urte igarota Tolosaldeko inguru hauetara hurbildu zen: Alkizara (bere abizen berria izango zena eskuratuz: Joxe Alkiza) eta Larraulera. Hamazazpi urte eta gero behera jaitsi zen: Irura eta Anoetara. Hor hamaika urte igaro ondoren bere azken parroketara etorri zen: Amezketara, Ugarte eta Bedaio. 2009an jubilatzen eta Apaizen egoitzara joan zen.

Joanen Ebanjelioan Jesusek Nikodemori berriro jaio behar zuela esan ziola askotan entzun izan dugu. Berriro jaiotze hori Joxeren bizitzaren ezaugarria izan zen. Guk badakigu Vatikanoko Bigarrena izan zela, Joxeri bizitza egokitu zitzaion. Kontzilio horrek aldaketa eragin zuen beregan. Hasteko jantzietan izan zuen eragina, sotana baztertu zuen.

Beste aldetik klase berezia izatetik munduan eta munduko erdian bizitzera igaro zen. Baserritar trebea izan balitz bezala Lurgintzan laguntzen eta aholku ematen.

Herri Gaztedian egin zuen lana ere hor dago.

Munduratzeko horretan Euskararen alorrean aritu zen. Zeruko Argian idatziz, itzulpen lanak eginez, bertso mundua maitatuz eta eliz kantuen hainbat letra egokituz.

Berriro jaiotze horretan beste era bateko kristau elkarteak antolatzen lanak izan zituen. Orain Sinodo erako Eliza hitza erabiltzen ari gara. Hitza erabili gabe

parrokietako Juntak eratu zituen, laikoen parte hartzea eta ardura bultzatu zituen. Azken urteetan berriz Salvatore Pastoral Barrutia eratu eta bultzatzen aritu zen. 2008ko maiatzaren 3an eratu izan zena eta izendapenak jaso genituena.

Berriro jaiotze hori bere adinkidekoekin aurrera eramaten saiatu zen. «Bizian gora» euskarazko taldeak bultzatu, eratu eta Gipuzkoako taldeen harremana bideratzen saiatu zen.

Ez dakit modernoa ala postmodernoa den baina, hitzaldi eta azalpenak Ama Mariari aipamena eginez bukatzeko ohitura dagoenez, hala eginez amaituko dugu. Etxezarretakoek bazuten Izaskungo Amarekiko lotura. Apaizteko Lourdesera, Mariarengana joan zen. Mariaren Jaiotza ziren parrokietan aritu da. Errosarioko amaren parrokiaren ardura ere izan zuen. Eta Amezketako Larraitz aldeko baserrietakoekin maiatzean, goizean, Larraitzen izaten zuen ospakizuna. Amaren laguntza izan dezala zerua zabal ikusi eta sartzeko. Goian Bego.

maiatza-ekaina / mayo-junio**BETERRI**

- Lasarte-Oriako *San Pedro Apostolua* parrokian (VI.24)

DONOSTIA

- *Artzain Ona -Erain* ikastetxea- (V.13)
- *Artzain Ona -Aldapeta Maria* ikastetxea- (V.20)
- *Artzain Ona* (V.28)
- *Karmengo Andre Maria* parrokian (VI.3)
- *Andre Maria Erregina* parrokian (VI.10)
- *Martuteneko Espetxea* (VI.24)
- *Loiolako San Ignazio* parrokian (VI.24)

GOIERRI

- Zumarragako *Andre Mariaren Zeruratzea* parrokian (V.13)

MENDEBALDE

- Soraluzeko *Andre Mariaren Zeruratzea* parrokian (V.28)
- Oñatiko *San Mikel Goiaingerua* parrokian (VI.4)
- Eibarko *Karmengo Andre Maria* parrokian (VI.17)

UROLA-KOSTA

- Zumaiako *San Pedro Apostolua* parrokian (V.28)

BIKARITZA NAGUSIA
VICARÍA GENERAL

IV ENCUENTRO SINODAL EN ARANTZAZU

189 personas de la diócesis de San Sebastián se encontraron en Arantzazu el 3 de junio para celebrar el cuarto encuentro sinodal de la diócesis.

La experiencia, presentada y facilitada por Mabel Cenizo y Maixabel Albizu, comenzó con la bienvenida a todos los asistentes en nombre de la comunidad franciscana en Arantzazu. Juan Miguel Dorronsoro, OFM, con unas bellas palabras, dio comienzo a la jornada.

La jornada sobre espiritualidad sinodal comenzó con un momento de oración comunitaria. La pianista Arantzazu Saiz acompañó estos momentos de silencio y evocación al Espíritu.

Tras ello, el sacerdote claretiano Carlos Martínez Oliveras impartió una conferencia de una hora sobre el tema del día, la espiritualidad sinodal.

Después, los asistentes pudieron compartir un café, tras el cual, se pasó a un momento de participación, trabajando en pequeños grupos y lanzando preguntas al ponente.

Una vez concluida la mañana, se celebró una comida en la Hospedería del Santuario. La tarde se reanudó con 4 sketches, pequeñas dramatizaciones con las que se quiso dar visibilidad a lo hablado a lo largo de la mañana. Tras ello, un momento más de trabajo en grupo y evaluación conjunta de la jornada.

Finalmente, a las 17:00 h., se celebró una eucaristía en el Santuario, presidida por el Obispo, D. Fernando Prado, CMF.

SINODOAREN IV. TOPAKETA ARANTZAZUN

Donostiako elizbarrutiko 189 lagun Arantzazun elkartu ziren ekainaren 3an, elizbarrutiaren laugarren topaketa sinodala ospatzeko.

Espereintzia, Mabel Cenizok eta Maixabel Albizuk aurkeztua eta bideratua izan zen. Arantzazuko frantziskotar komunitatearen izenean bertaratutakoei ongietorriarekin hasi zen. Juan Miguel Dorronsorok, OFM, hitz ederrez, hasiera eman zion jardunaldiari.

Espiritualtasun sinodalarri buruzko jardunaldia otoitz komunitarioko une batekin hasi zen. Arantzazu Saiz piano-joleak isiltasun eta Espiritua deitzeko momentu hauek lagundu zituen.

Ondoren, Carlos Martinez Oliveras klaretarrak, ordubeteko hitzaldia eman zuen eguneko gaiari buruz, espiritualtasun sinodala.

Ondoren, bertaratutakoek kafe bat partekatu ahal izan zuten eta, ondoren, parte hartzeko une batera pasa ziren, talde txikietan lan eginez eta hizlariari galderak eginez.

Goiza amaitu ondoren, bazkaria egin zen Santutegiko ostatuan. Arratsaldea 4 sketch txikirekin hasi zen, goizean zehar hitz egindakoa oholtzan islatuz. Ondoren, beste une bat taldean lan egiteko eta jardunaldia batera eba-luatzeko.

Azkenik, 17:00etan eukaristia ospatu zen Santutegian, Fernando Prado, CMF, gotzaina buru zelarik.

Servicio Diocesano de Economía y Administración

NECESIDADES DE LA IGLESIA UNIVERSAL

Resumen de lo recaudado en 2022

<i>Arciprestazgo</i>	<i>euros</i>
BETERRI	1.618,07
DONOSTIA.....	7.448,73
EKIALDE.....	2.078,09
GOIERRI.....	2.173,27
MENDEBALDE.....	2.353,23
UROLA-KOSTA.....	818,53
	<hr/>
TOTAL.....	16.489,92

Ekonomia eta Administrazioarako Elizbarrutiko Zerbitzua

MUNDUKO ELIZAREN BEHARRAK

2022ko diru-bilketaren laburpena

<i>Artziprestaldea</i>	<i>euro</i>
BETERRI	1.618,07
DONOSTIA.....	7.448,73
EKIALDE.....	2.078,09
GOIERRI.....	2.173,27
MENDEBALDE.....	2.353,23
UROLA-KOSTA.....	818,53
	<hr/>
GUZTIRA.....	16.489,92

Otros

MARCHA NOCTURNA A ITZIAR

6-7 de mayo

La Marcha nocturna de Donostia a Itziar es una Marcha veterana ya en nuestra Diócesis, ya que su comienzo se remonta al año 1952. Este año hemos celebrado la edición número 69 y se desarrolló del 6, sábado, al 7 de mayo, domingo. No es una marcha apta para todos, ya que supone unas diez horas de marcha y, al final, se recorren en torno a 40 kilómetros. Para hacerla es necesaria una cierta preparación física y disposición de ánimo. La Marcha admite una motivación variada: buena parte la realiza por motivos religiosos, predominando en algunos el sentido de agradecimiento a la Virgen por algún favor recibido o el cumplimiento de alguna promesa realizada; hay quienes la realizan por motivos más bien deportivos o buscando el clima que surge al caminar juntos y de noche todo un grupo de personas; a otros les anima la belleza del recorrido.

Predomine un motivo u otro, siempre es una ocasión privilegiada para el encuentro con uno mismo, con los compañeros del camino, con la naturaleza y ese misterio de vida y amor que es Dios. Por eso, en la Marcha se cuidan los momentos de silencio y escucha, de reflexión variada, de música o testimonios. Para ello cuenta con un equipo de animación, que este año ha estado formado por Joxeagus Arrieta, Ángel Miranda, Patxi Aizpitarte, Mikel Iraundegi e Iñaki Akizu. El tema abordado a lo largo del camino ha sido el de la felicidad, como anhelo humano compartido, y las Bienaventuranzas proclamadas por Jesús (*Mt 5, 1-12*). De ahí que el lema de la Marcha fuera: «¿Felices? ¡Si! ¿Por qué no?».

ITZIARRERA GAU-IBILALDIA

maiatzak 6-7

Ohiturari jarraituz, maiatzeko lehen asteburuan egin dugu aurten ere Itziar-ko Gau-ibilaldia. 1952an hasitako ekimena dugu eta aurtengoa 69. ibilaldia genuen. Egia esan, ez da edonork egitekoa, izan ere hamar bat orduko bidea baita, berrogei bat kilometro eginez guztira. Ibilaldia egiteko arrazoiak ezberdinak izan daitezke: batzuk fededun moduan egin ohi dute, Itziar-ko Andre Mariari dioten debozioa tarteko; beste batzuk egindako promesaren bat bete nahiez edota eskerrak ematearren; badira gauez eta ibiliz sortzen den lagunarte giroaz gozatzeko asmoz egiten dutenak; eta baita kirol ibilaldi bezala hartzen dutenak ere.

Arrazoi batekin edo bestearekin egin, Ibilaldiak norbere buruarekin, gainerako ibiltariekin, naturarekin eta, agian, Jainkoarekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen du. Guztiok gara bidaiari bizitzaren bidean eta posible da esperientzia erlijiosoren bat bizitzea Ibilaldian zehar. Horregatik, garrantzia ematen diegu bidean zehar egiten diren gogoeta saioei, isiluneei, kantu, poema eta testigantzei. Honetan saiatzen da animatzaile taldea: Joxeagus Arrieta, Angel Miranda, Patxi Aizpitarte, Mikel Iraundegi eta Iñaki Akizuk osatua. Aurten zorionaren gaia eta Jesusen zoriontasunak (*Mt 5, 1-12*) izan dira hitz-bide.

Arratsaldeko zortzietan atera ginen Ondarretatik, Ibilaldiko gurutzea aurretik genuela eta «*Zoriontsu? Bai! Zergatik ez?*» lemapean. 350-400 lagun ginen agian eta deigarria zen gazte eta sasoiko pertsonen presentzia. Gure-

La salida se realizó a las ocho de la noche de Ondarreta-Donostia, con la cruz de la Marcha al frente y acompañados por la Cruz Roja y la guardia municipal. El grueso estaba formado por unas 350-400 personas, con una presencia notable de jóvenes y personas de buena edad. Tras subir a Igeldo, caminamos hacia Orio, siendo acogidos por voluntarios de la parroquia en la ermita de San Martín, donde nos ofrecieron una vez más agua con limón. Al llegar a la plaza de Orio paramos para cenar con los bocatas que llevábamos en la mochila. A las doce de la noche saldríamos hacia el camping de Zarautz, bajando al pueblo y atravesándolo para encaminarnos, bordeando la costa, a Getaria, donde hicimos un breve descanso. De Getaria subimos a Askizu y de aquí bajamos a Zumaia, donde nos esperaba otro grupo de voluntarios de la parroquia, con el café, café con leche y el agua con limón preparados.

A las cuatro de la mañana nos disponíamos a realizar la última etapa del recorrido, subiendo de Zumaia a Itziar, donde llegábamos a algo más tarde de las seis de la mañana. En la entrada del pueblo nos esperaban la imagen de la Virgen de Itziar y nuestro obispo Fernando. A las seis y media celebramos la Eucaristía en el santuario presididos por el obispo, cantando el coro de Itziar y participando diversas personas de la Marcha. Al finalizar la Eucaristía nos despedíamos un tanto cansados, pero con la impresión positiva del camino realizado y compartido, y albergando el sentimiento de volver a repetirlo el próximo año.

kin ziren Gurutze Gorrikoak eta udaltzainak Ibilaldia babesteko eta ezbeharren bat izanez gero laguntzeko. Igeldora igo eta Orioko San Martin ermitara iristean, zain genituen parroko kolaboratzaileak limoi-ura eskaintzeko eta herriko enparantzara iristean, bertan afaldu genuen, etxetik eramandako bokatak janez eta konpartituz.

Oriotik Zarautzeko kanpinera igo ginen eta, handik, Zarautz herrira jaitsi, zeharkatu eta Getarira iritsi. Atsedean labur baten ondoren, Askizu aldera jo genuen, ondoren Zumaiara jaitsiz. Hemen ere, zain genituen parroko lagunak kafea, kafesnea edo limoi-ura eskainiz. Eta goizeko lauak aldera, azken etapa egitera atera ginen, gogorrena agian, Itziarrera goizeko seiak pasata iritsiz. Han genituen sarreran Itziarko Andre Mariaren irudia eta Fernando gotzaina zain. Ondoren Eukaristia ospatu genuen santutegian, gotzaina buru zelarik, Itziarko koruak abestuz eta Ibilaldiko hainbat partaideek parte hartuz. Honek berekin du nekea, baina baita barne-poza eta datorren urtean berriro egiteko gogoia ere.

PEREGRINACIÓN DIOCESANA A LOURDES

Durante los días 26, 27 y 28 de mayo, tuvo lugar la 68 peregrinación diocesana a Lourdes, organizada por la Hospitalidad de Lourdes de Gipuzkoa, bajo el lema: «*Juntos de nuevo a Lourdes*».

Durante la misma se llevaron a cabo encuentros, celebraciones, procesiones, vía crucis, etc., en los que participaron las casi 400 personas de todo Gipuzkoa que acudieron en calidad de voluntarios y enfermos.

La peregrinación estuvo acompañada por el Sr. Obispo de la diócesis, D. Fernando Prado, que acudía por primera vez con la Hospitalidad de Gipuzkoa. El Sr. Obispo ofició la eucaristía en la Gruta de Lourdes el sábado 27 de mayo, día de Gipuzkoa, junto a un grupo de sacerdotes de la diócesis y contando también con la asistencia de cerca de 1.500 peregrinos llegados desde todo el territorio.

El domingo 28 de mayo acudieron los inmigrantes de la diócesis y para la noche todos regresamos a nuestras casas y a las residencias con el deseo de volver a peregrinar a Lourdes el próximo año.

ELIZBARRUTIKO ERROMESALDIA LOURDESERA

Maiatzaren 26, 27 eta 28an, Gipuzkoako Lourdeseko Hospitalitateak antolatuta, 68. elizbarrutiko erromesaldia izan zen, honako goiburupean: «*Elkarrrekin berriro Lourdesera*».

Topaketak, ospakizunak, prozesioak, gurutze-bideak eta abar egin ziren, eta boluntario eta gaixo gisa bertaratu ziren Gipuzkoa osoko ia 400 pertsonen parte hartu zuten.

Erromesaldiarekin batera, elizbarrutiko gotzaina, On Fernando Prado, izan zen Gipuzkoako Hospitalitatearekin lehen aldiz. Gotzain jaunak eukaristia ospatu zuen Lourdeseko Haitzuloan maiatzaren 27an, larunbata, Gipuzkoako Egunean, elizbarrutiko apaiz talde batekin batera eta lurralde osotik etorritako 1.500 erromes inguru ere bertan zirelarik.

Maiatzaren 28an, igandea, elizbarrutiko etorkinak bertaratu ziren eta gaue-rako denok gure etxeetara eta egoitzetara itzuli ginen, datorren urtean Lourdesera erromes joateko asmoz.

JUNIO, MES DEL SAGRADO CORAZÓN DE JESÚS

El pasado mes de junio, como cada año, y por ser el mes dedicado al Corazón de Jesús, hubo una gran actividad en la capilla del Monumento al Sagrado Corazón de Jesús del Monte Urgull.

Durante este mes, además de la Eucaristía de los viernes y domingos, hubo Misa todos los días, a las 9:30 h., de lunes a sábado y a las 9 h. los domingos.

En la solemnidad del Sagrado Corazón de Jesús, que este año se celebró el 16 de junio, hubo Misa a las 9, 10, 11, 12 y 13 h. y por la tarde a las 18, 19 y 20 h., esta última con un gran grupo de jóvenes. Además, a las 15 h. se rezó la Coronilla de la Divina Misericordia, a las 17 h. hubo una Hora Santa y a las 19 h. una procesión subió con una imagen del Sagrado Corazón de Jesús desde la base del Monte hasta la capilla.

El Sr. Obispo, que ese día no pudo acercarse por problemas de agenda, celebró la eucaristía el día 13 de junio.

El jueves 15, la Adoración Nocturna de San Sebastián organizó, como es habitual, una vigilia de Adoración Eucarística a las 22:30 h. en la capilla del Monte Urgull, en la víspera de la solemnidad del Corazón de Jesús.

Por otra parte, el domingo 18 tuvo lugar la entrega de premios del concurso de dibujo que organiza la Asociación de Amigos del Sagrado Corazón de Jesús del Monte Urgull y del Santo Cristo de la Mota, con un gran grupo de niños y familias que acudieron a la entrega de premios que fue precedida por la Eucaristía a las 12 h. para los asistentes.

EKAINA, JESUSEN BIHOTZAREN HILABETEA

Joan den ekainean eta Jesusen Bihotzari eskainitako hilabetea izaki, jarduera handia izan zen Urgull mendiko Jesusen Bihotzaren Monumentuaren kaperan, urtero bezala.

Hilabete honetan, ostiral eta igandeetako Eukaristiaz gain, meza izan zen egunero, astelehenetik larunbatera, 09:30ean, eta 09:00etan igandeetan.

Jesusen Bihotzaren festaburuan, ekainaren 16an, meza izan zen 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan eta, arratsaldean, 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan, azken hori gazte talde handi batekin. Gainera, 15:00etan *Coronilla de la Divina Misericordia* errezatu zen, 17:00etan Ordu Santua izan zen, eta 19:00etan, prozesioa igo zen Jesusen Bihotzaren irudi batekin, mendiaren oinarritik kaperaraino.

Gotzain jauna ezin izan zen egun horretan hurbildu, agenda arazoengatik, eta ekainaren 13an ospatu zuen eukaristia.

Ostegunean, hilak 15, Donostiako Gau Gurtzak Jaunaren Gurtzarako gaubeila antolatu zuen ohi bezala, 22:30ean, Urgull mendiko kaperan, Jesusen Bihotzaren solemnitarearen bezperan.

Bestalde, igandean, hilak 18, Urgull mendiko Jesusen Bihotzaren Adiskideen Elkarateak eta Motako Kristoren Adiskideen Elkarateak antolatzen duen marrazki-lehiaketaren sari-banaketa izan zen; ume eta familia ugari izan ziren 12:00etako Eukaristiaren ondoren egin zen sari-banaketan.

PASTORALTZARAKO
GOTZAIN BIKARITZAK
VICARÍAS EPISCOPALES
DE PASTORAL

PASTORAL DE EVANGELIZACIÓN

Servicio Diocesano de Iniciación Cristiana y Catequesis Catecumenado de Adultos

CONFIRMACIONES DE ADULTOS: CONVIVENCIA Y CELEBRACIÓN

El 20 de mayo se celebró en el Seminario de San Sebastián el encuentro de los confirmandos que recibieron el sacramento de la Confirmación el día 28 de mayo, Pentecostés, en la Catedral de San Sebastián, a las 12:00 de la tarde. Los jóvenes-adultos que recibieron los tres sacramentos de la iniciación cristiana los hicieron en la Vigilia Pascual.

En el encuentro participaron 20 jóvenes-adultos de varios lugares de Gipuzkoa, aunque mayoritariamente de San Sebastián. El encuentro comenzó a las 9:30 de la mañana con una preciosa oración y continuó con una catequesis impartida por Mikel Iraundegi, diácono permanente, en torno a la dinámica que suscita el Espíritu Santo en los corazones que lo reciben. Después de un breve diálogo sobre la catequesis, María Rivero explicó algunas cosas prácticas de la celebración antes del descanso.

Al terminar el tiempo del café, los confirmandos tuvieron la oportunidad de celebrar el sacramento de la reconciliación y el encuentro terminó con la celebración de la Eucaristía, presidida por Juan Mari Olaetxea, Vicario General, a la 13:30 del mediodía. La gente quedó muy contenta.

EBANJELIZATZE PASTORALTZA

Kristau Sarbiderako eta Katekesirako Elizbarrutiko Zerbitzua Helduen Katekumenotza

HELDUEN SENDOTZAK: ELKARBIZITZA ETA OSPAKIZUNA

Maiatzaren 28an, Pentekoste egunean, eguerdiko 12:00etan Donostiako Katedralean Sendotzaren sakramentua jaso zutenen topaketa egin zen maiatzaren 20an, Donostiako Seminarioan, Kristau sarbideko hiru sakramentuak jaso zituzten gazte-helduek Pazko Bijilian egin zuten.

Gipuzkoako hainbat tokitako 20 gazte-helduk hartu zuten parte topaketan, gehienak Donostiakoak baziren ere. Topaketa goizeko 09:30ean hasi zen, otoitz eder batekin, eta Mikel Iraundegi diakono iraunkorrek Espiritu Santuak hori jasotzen duten bihotzetan pizten duen dinamikaren inguruan emandako katekesiarekin jarraitu zuen. Katekesiari buruzko elkarrizketa labur baten ondoren, ospakizunaren zenbait gauza praktiko azaldu zituen Maria Riverok, atsedenaldiaren aurretik.

Kaferako tartearen ondoren, adiskidetze sakramentua ospatzeko aukera izan zuten sendotza hartu zutenek, eta Eukaristiarekin amaitu zen topaketa, 13:30ean, Juan Mari Olaetxeak, Bikario Nagusia, buru zela. Jendea oso pozik geratu zen.

SANTA TERESA IKASTETXEA, LARRAMENDI IKASTETXEA Y JESUITINAS DONOSTIA FIRMAN UNA ALIANZA PARA CONSTRUIR JUNTAS UN MODELO EDUCATIVO DE REFERENCIA

Donostia, 5 de mayo de 2023

Tras años de conversaciones y de creación del proyecto, la Fundación Escuela Teresiana, la Fundación Elikel y la Fundación Educativa Jesuitinas, titulares de los tres centros educativos donostiarras, han dado ayer a conocer el acuerdo de integración al que han llegado. Estos tres colegios con historia y reconocido prestigio en Donostialdea unen sus fuerzas a partir del próximo curso para desarrollar un proyecto integrador y sólido en la ciudad que dé respuesta a los retos educativos de la sociedad del siglo XXI.

El proyecto, que cuenta con la aprobación del Departamento de Educación, busca consolidar la oferta actual de enseñanzas de los colegios (0-18 años) y posibilita que, en colaboración con otras instituciones públicas y privadas de otros sectores, se puedan ampliar horizontes ofreciendo otras enseñanzas regladas y actividades extracurriculares que ayuden al desarrollo de los pilares pedagógicos sobre los que se asienta el nuevo proyecto educativo.

Tras el anuncio de ayer, las tres instituciones continúan trabajando para construir un proyecto educativo de calidad que sea referencia en Donostia. Apuestan por un modelo de escuela familiar en el que el alumnado, las familias y el profesorado se relacionan de manera positiva y constructiva, desde el convencimiento de que las personas son irrepetibles, que se desarrollan en comunidad, personas que se hacen preguntas y están abiertas al aprendizaje y al compromiso con un mundo en cambio.

SANTA TERESA IKASTETXEAK, LARRAMENDI IKASTETXEAK ETA JESUITINAS DONOSTIA IKASTETXEAK ALIANTZA BAT SINATU DUTE ELKARREKIN HEZKUNTZA EREDU ERREFERENTEA ERAIKITZEKO

Donostian, 2023ko maiatzaren 5ean

Hainbat urte elkarrekin lan egin ondoren eraiki den proiektu berria komunikatzeko momentua iritsi da. Escuela Teresiana Fundazioak, Elikel Fundazioak eta Jesuitinas Fundazioak, Donostiako hiru ikastetxeen titularrek, gizarteari eskaintzen dioten proiektu integratzailea jakinarazi zuten atzo. Donostialdean tradizio handia duten hiru ikastetxe hauek beren indarrak batu eta datorren ikasturtetik aurrera, XXI. mendeko gizartearen hezkuntza-erronkei erantzun-go dien proiektu integratzaile eta sendoa eskainiko dute.

Proiektu horrek Hezkuntza Sailaren onespena du, eta ikastetxeen (0-18 urte) egungo irakaskuntza-eskaintza sendotzea du helburu. Beste sektore batzuetako erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan, beste irakaskuntza araututa eta curriculumetik kanpoko jarduerak eskainiko ditu, hezkuntza -proiektu berriaren oinarri pedagogikoak garatuz.

Atzoko iragarkiaren ondoren, hiru erakundeek lanean jarraitzen dute Donostian erreferentzia izango den kalitateko hezkuntza proiektu bat eraikitzeko. Eskola familiarra den eredu baten alde egiten dute apostu, non ikasle, familia eta irakasleen arteko erlazio positibo eta konstruktiboak dira, pertsonak errepikaezinak direla sinetsiz, komunitatean garatzen direla, pertsona gogoe-tatsu direnak, bizitza osoan ikasteko prest eta aldatzen ari den munduarekiko konpromisorako irekiak daudenak.

Esta alianza será visible ya el próximo curso 2023-24, en el que todo el alumnado de 0, 1, 2 y 3 años de los tres colegios se integrarán en las instalaciones de Santa Teresa Ikastetxea. En los siguientes cursos se irán dando otros pasos para confluir en un proyecto diferenciador en Donostia.

Se da respuesta así a la confianza que las familias han depositado en cada uno de los centros y se posibilita que el nuevo proyecto educativo nazca con solidez y fortaleza.

Sobre los tres colegios

Larramendi Ikastetxea:

La historia del colegio va ligada a la historia del Seminario Menor, ubicado en Saturarrán hasta 1968. Se traslada a Donostia en ese mismo año y se convierte, bajo el nombre de Manuel de Larramendi en colegio de Educación Básica. En 1982 se fusiona con el centro San Sebastián Mártir, pasando a ser un colegio mixto. Años más tarde se integra en la red de colegios concertados y poco a poco se va ampliando la oferta educativa hasta abrir el aula de 0 años en 2016.

En los últimos cursos, tras mucho trabajo, estudio y esfuerzo, y en colaboración con distintos entes educativos ha realizado un cambio pedagógico, poniendo en marcha el modelo «*Larramendi Bidea*». El centro pertenece a la Fundación Elikel (Diócesis de San Sebastián).

Santa Teresa Ikastetxea:

La Compañía de Santa Teresa de Jesús inauguró el primer colegio teresiano en San Sebastián en el año 1929 en el barrio de Gros. Posteriormente, en 1968, se trasladó a Ibaeta y en la actualidad pertenece, junto con otros 21 colegios, a la Fundación Escuela Teresiana.

Es un colegio concertado que ofrece una enseñanza cristiana y de calidad basada en los principios pedagógicos de su fundador, Enrique de Ossó, que se inspiró en Santa Teresa, y abarca desde los 0 años hasta Bachillerato.

Aliantza hau datorren ikasturtean, 2023-24ean, gauzatuko da, non hiru ikastetxeetako 0, 1, 2 eta 3 urteko ikasle guztiak momentu honetan Santa Teresa Ikastetxekoak diren instalazioetan egongo diren. Hurrengo ikasturteetan beste urrats batzuk emango dira Donostian proiektu berri honetan bat egiteko.

Modu honetan, familiek ikastetxe bakoitzean jarri duten konfiantzari erantzuten zaio, hezkuntza-proiektu berria sendo eta indartsu sortuz.

Hiru ikastetxeei buruzko informazioa

Larramendi Ikastetxea:

Ikastetxe honen historia 1968 arte Saturraranen zegoen Seminarioaren historiari lotuta dago. Urte horretan bertan Donostiara trasladatu zen eta Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe bihurtu, Manuel de Larramendi izenarekin. 1982an San Sebastián Martiri ikastetxearekin bat egin zuen, eta ikastetxe mistoa bihurtu zen. Urte batzuk geroago, ikastetxe itunduen sarean sartu zen, eta, pixkanaka, hezkuntza-eskaintza zabaldu egin zen eta 2016an 0 urteko gela irekiz.

Azken ikasturteetan, lan, hausnarketa eta ahalegin handia egin ondoren, eta hainbat hezkuntza-erakunderekin lankidetzan, aldaketa pedagogikoa egin du, eta «*Larramendi Bidea*» eredu abian jarri. Ikastetxea Elikel Fundazioarena da (Donostiako Elizbarrutia).

Santa Teresa Ikastetxea:

Santa Teresa de Jesusen Lagundiak Gros auzoan inauguratu zuen lehen ikastetxea 1929an. 1968an, Ibaetara joan zen eta gaur egun, beste 21 ikastetxe-rekin batera, Escuela Teresiana Fundaziokoa da.

Ikastetxe itundua da, eta irakaskuntza kristaua eta kalitatezkoa eskaintzen du, Enrique de Ossó fundatzailearen printzipio pedagogikoetan oinarritua. Santa Teresan inspiratu zen, eta 0 urtetik Batxilergo arte hartzen du, horien artean Batxilergo duala.

Situado en la zona universitaria de Donostia, en el barrio de Ibaeta, cuenta con amplios espacios ajardinados en un entorno privilegiado de integración con la naturaleza.

Jesuitinas Donostia:

El colegio Jesuitinas Donostia (Nuestra Señora de Aránzazu) fue fundado por las Hijas de Jesús. El primer centro se abrió en 1925 en el barrio de Gros. El actual centro, 1967, pertenece a la Fundación Educativa Jesuitinas junto con otros 22 centros. Es un centro educativo cristiano, concertado en las etapas de infantil, primaria y secundaria, plurilingüe e inserto en la sociedad vasca.

Su estilo educativo se caracteriza por una atención personalizada al alumnado, en toda su diversidad, cubriendo las necesidades específicas de cada uno de ellas/os en un ambiente que favorece las relaciones positivas entre todos los miembros de la comunidad educativa: alumnado, educadores, familias.

Es el único centro de Gipuzkoa autorizado para impartir el Programa del Diploma (16-18) y solicitante del Programa de Educación Primaria (3-12) del Bachillerato Internacional.

ASUNTO: Presentación de un proyecto educativo integrador en Donostia.

CONTACTO:

Pablo Labandeira: 600 91 47 54 (comunicacion@jesuitinas.es)

Santa Teresa Ikastetxea: 943 21 17 64

Jesuitinas Donostia: 943 21 23 07

Larramendi Ikastetxea: 943 21 39 22

Donostiako unibertsitate-eremuan dago, Ibaeta auzoan, zonalde berde zabalak ditu, naturarekin erlazio pribilegiatua eskainiz.

Jesuitinas Donostia:

